



Euskal Kros arrakastatsua beste behin

Landaberri ikastolak antolatuta, Atsobakarren burutu zen Eneko Kastoren omenezko krosa

Euskara eta kirola bultzatu asmoz, eguraldi paregabearen laguntzaz, giro bikainean burutu zen atzo goizean Eneko Kastro atletaren omenezko XV. Euskal Krosa Atsobakar auzoan. Landaberri ikastolak urtero antolatzen duen euskal krosean neska mutil ugari hartu zuen parte eta lasterketa bukatzean, domina bana eta edaria zituzten zain.

Jendez lepo zegoen Atsobakar auzoa, lasterkarien guraso, aitona-amona, senide eta lagunak joan baitziren txikiak korrika egiten ikustera. Denak txalo zaparrada batekin hartzen zituzten helmugan, eta guraso guztiak nahi zuten euren seme-alabaren argazkiren bat jaso, oroimenerako.

Gozatzea helburu

Urteroko izaera mantendu du aurtengoan ere Euskal Krosak eta amaieran ez zen onenentzat saririk izan. Lasterketa guztiak amaitzean, hainbat sari zozketatzen dira urteroko tradizioari eutsiz.

Izan ere, haurren artean lehiakortasunaz haratago, parte hartzea eta haurrek kirola eginez gozatzea dute helburu antolatzaileek.

Horretarako, parte hartzaile guztien artean kirolarekin eta euskararekin lotutako opariak

banatu ziren zozketa bidez eta zenbaitek irribarre zabal batekin aldegin zuen etxera.

Parte-hartze handia

Aurtengoan ere, parte-hartzea bikaina izan da. Hamar bat lasterketa egin zituzten, adinaka banatuta eta guztiak 500 bat metroko barrutiari hainbat itzuli eman behar izan zizkioten. Amaitzeko, antolatzaileek eskerrak eman zizkioten laguntzen aritu ziren guztiak.

Eneko Kastoren oroimenez

Beste behin ere, Eneko Kastro atleta gogoratu nahi izan zuten Euskal Krosean.

Horretarako, Kastro zena-ren ama aritu zen gaztetxoei sariak banatzen, bakoitzari oparia eta muxu bana emanaz. Ama bakarrik ez, aitek ere gerturatu nahi izan zuen txikienek lasterka nola egiten zuten ikustera.



3 UDALA

Auzoko bileren balorazio ona egin du Udalak

"Auzoz auzo. Pausoz pauso" parte-hartze ekimenaren lehenengo fasea amaitu da. Lasarte-Oriako Udalak saioen irakurketa egin du eta pozik agertu da harrerarekin.



5 EUSKARA

Kirol zerbitzuetan euskaren erabilera bultzatzeko lanean

Kiroldegiko helduentzako ikastaroetan gero eta euskara gehiago erabiltzen da. Kirol eta Euskara zerbitzuak batera ari dira lanean monitore guztiak elebidunak izan daitezen.

6 TXIRRINDULARITZA

Hasi dira herriko txirrindulariak pedalei eragiten

Alebin, infantil, kadete eta junior mailetako herriko txirrindulariak jo eta ke dihardute errepideko denboraldian pedalei eragiten. Asteburuan, Usurbilen izan zuten zita.



MEKANIKA MANTENIMENDUA

Diseina ezazu zure etorkizuna!

HEZI BIZI HAZI

ELEKTRIZITATEA ELEKTRONIKA

IKASTETXEA IKUSTEKO AUKERA

PUERTAS ABIERTAS

DISEINUA INPRIMAKETA

SALESIANOS urnieta SALESIARRAK

MARTXOAK 22 MARZO MAIATZAK 31 MAYO

17:00 · 20:00

www.salesianosurnieta.com

943 551 789

Adituak dio



Ana Isabel Prieto
Zerbitzueta Batzorde Burua

Hiribusa

Geroz eta gertuago dugu gure kaleetan zehar hiribarneko autobusa ikusiko dugun eguna. Uztailean zerbitzu publikoen lehendakaritza hartu nuenetik, hiribus zerbitzua legalki ezartzea izan da lehentasuna. Inongo babes legalik gabe funtzionatzen zuen autobus baten aurrean aurkitu ginen. Mantentzeko egon zitezkeen aukera ezberdinak aztertu ziren, eta PSOEk aurkeztu zigun ikerketa ekonomikoaren arabera, oso zaila ikusten genuen benetan zerbitzuaren jarraipena Udalari suposatzen zion kostu handia zela eta. Gogor lan egin dugu eta lan horrek bere fruituak eman ditu; eskaintza berriak aurkitu ditugu, aukeren abanikoa zabalduz. Kostu ekonomiko hori modu adierazgarriari murriztu dugu, 131.658 eurotik 56.790 eurora jeitsiz, alegia, %56,87 aurreztuz.

Auzo elkarteei ere hitza eman zitzaizen ibilbidea eta ordutegiak adosterako orduan; denek egin ahal izan zituzten beraien ekarpenak eta akordio global batetara iritsi ginen.

Txartelaren prezioa beste gai garrantzitsu bat izan da: 0,60 eurokoa izango da. Momentuz Lurraldebusen ez sartzea erabaki da, Udalaren partetik 45.000 eurotako inbertsioa suposatzen duelako eta hiritarrentzako abantailak momentu honetan oso gutxi direlako: hiribusaren bidai kopurua ez da kontutan hartzen deskontuak egiteko orduan eta ezin liteke transbordorik egin txartel berri bat ordaindu gabe. Etorkizunean, agian abantailak ekarriko ditu, baina oraingo ez da horrela.

Plieguen onarpenarekin lana bukatzea besterik ez da falta, denbora gutxian egin ahal izatea espero dugu, eta babes legal guztiak dituen hiribus zerbitzu batekin gozatuko dugu prezio ekonomiko batean eta ibilbide zabalarekin.

Garraio zerbitzuaren erronkak

Orain hilabete batzuk Txintxarri Lasarte-Oriako bidegorrien inguruan hitz egin genuen eta hauen sarea luzatzeko asmo sendoa azaltzen zuen udal gobernu berriak. Orduan ere hainbat proiekturen artean, aipatu ziguten ez zegoela bere esku, hainbestetan eskatutako Plazaolako bidegorriarekin lotura egitea. Hau da, Aldundiak burutu beharreko lana dela.

Aurreko astean gaia berriz ere etorri zitzaigun burura. Eguraldi ona izan dugun honetan bizikletaz txango bat egitekotan, gaia atera zen. Dirudienek Aldundiak duen oztopo pribatuak diren lur batzuk dira, hobeto esanda, jabetza pribatuko tunel bat dago tartean. Aldundiak orain arte ez du beste irtenbiderik proposatu eta horrela jarraitu dugu. Bide

zoragarri hau erabili ahal izateko Andoainera joatera behartuta gaude. Gaitz erdi, kontutan izanda autobus zerbitzu ona daukagula Andoainera. Bestela ibiliko ginatete Urnieta-joateko ezta? orduan bai komeriak, bi autobus hartu behar iristeko.

Bestalde, onartu behar da Donostiara joateko euskotrenen zerbitzuaz gain, autobusak ere nahikoa maiztasunarekin ditugula. Alabaina, autobus zerbitzuak ere ba omen du herritarrentzat zer hobetu, batez ere azken zerbitzuaren ordutegia luzatzea nahi dute. Bestalde, Añorgarekin lotura falta dela diote, bizikletaz edo oinez Donostiara heltzeko. Gainera, autoa erabiltzeko joera somatu dugu galdetutakoaren artean eta tren garbia eta erosoago dela azpimarratu dute gehienek.

Hitz eta pitz

Garraio publikoa erabiltzen al duzu ?



Puri Cabado

Ondo komunikatuta dago Lasarte, autobusa eta tren dugu, beraz beste herriekin alderatuz oso ondo gaude. Batez ere Donostiara joaten naiz. Kotxea badaukat baina han ezin da aparkatu. Aurrejubilatuta nago eta gehiegi ez, baina erabiltzen dut. Tarjetarekin gainera merkeago ateratzen da. 65etik aurrera, doan ez baina merkeago izango da. Trena merkeagoa iruditzen zait gainera.



Elena Aburuz

Beste tokiekin ez dakit, baina nire ustez lotura ona dago Donostiarekin. Autobusa batzuetan erabiltzen dut, baina oso deserosoa da, jende asko dabilelako eta sarri gidariak oso azkar gidatzen dutelako. Zutik joan behar da, ez zait batere gustatzen, eta ahal baldin badut topoan joaten naiz: ezberdina da, oso eroso, puntuala eta garbia dago. Beste tokietara autoan joaten naiz.



Ane Aranzabal, Amaia Urretzarazu eta Maitane Rebe

Donostiara joateko zerbitzua ondo dago. Guk normalean autobusa erabiltzen dugu, tren baina gehiago. Gazteak gara eta gauetan autobus gehiago egon beharko liriteke, ostiral eta larunbatetan. Eta batez ere festetan, beste herrietako festatara joan ahal izateko. Bestela oro har autobusak erosoak dira.



Carlos Acuña

Egia esan komunikazio alde-rik Lasarte ez dago gaizki. Batez ere, oso ondo etorri zazio tren herriari. Hamarreko bonoarekin merkea da, oso eroso eta Donostiara joateko onena, han ez dago eta aparkatzerik. Garraio publikoa soilik Donostiara joateko erabiltzen dut, autobusa baino gehiago tren haurren trasteekin bazoaz erosoagoa delako. Bestela autoan ibiltzen naiz.

Iruditan



Plazaolako tren egun Tren txiki deritzen zubitik. Kutxa Fototeka.

"Tren txiki" eta Geltoki kalea

Ohitu egin gara N-1 errepidera eta Lasarte-Oriarekin lotzen den biderik garrantzitsuena dela esango dute askok, baina errepide hau berria da, noski. Plazaolako trenbidearen zati bat iristen zen gurera eta bertatik igarotzen zen Iruñea eta Donostia lotzen zituen tren. Egun, herriko Geltoki izenarekin ezagutzen dugun kalean zegoen kokatuta hain juxtu tren honen geralekua. Irudia 1921. urtekoa dugu eta bistan denez ingurua apur bat aldatu bada ere, "Tren txiki" zubia oraindik bertan daukagu iragan horren lekuko.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

PARTE-HARTZEA

Parte-hartze positiboa

Auzoz auzoko bigarren fasea bihar hasiko da Zabaleta auzoan

“Auzoz auzo. Pausoz pauso” partehartze ekimenaren lehenengo fasea amaitu da. Lasarte-Oriako Udalak saioen irakurketa egin du eta pozik agertu da ekimenak izan duen harreragatik.

Astelehenean bukatu ziren herritarren parte hartzeko lehenengo faseko bilerak eta Parte-hartze sailak balorazio oso positiboa egin du.

“Bileretako dinamika parte-hartzailea berria da, eta hala ere, orokorrean auzotarrak parte-hartzen gustura egon direla esan daiteke,” adierazi dute.

Gainera, “auzotarrek asko eskertu dute beraien kexa, kezka eta proposamenak egiteko emandako aukeragatik eta bigarren bilerarako gogoia ere adierazi dute” aipatu digute.

Proposamenak eta diagnosis

Era berean, saio desberdinetan eskaera edo ideia asko bildu direla jakitera eman dute, “zehatz-mehatz 280 ekarpen jaso dira ideia, kexa eta proposamenen”. Eta gehienak zerbitzu orokorretara zuzenduak izan direla azpimarratu dute.

Lehenengo bilerak bukatu



“Auzoz auzo. Pausoz pauso” ekimenak parte-hartze ona izan du.

L-O UDALA

zirenetik, bigarren faseari begira lanean egon da Parte-hartze departamentua. Udaleko departamentu ezberdinekin bildu eta hauek jasotako kexa, kezka eta proposamenak multzokatu dira bertan.

Honela, nahiz auzo bakoitzak ezaugarri ezberdinak izan, saioen azterketen ostean egindako diagnostikoetan ideia batzuk komunak atera direla aditzera eman dute.

Eta lehenengo bilerara joaterik izan ez duten herritarrei, auzoko diagnostikoa jaso nahi izan ez gero, Kultur Etxean edo parte-hartzeko partehartzea@lasarte-oria.org helbidean eskaera eginaz lortzeko aukera izango dutela jakin arazten die.

Bigarren fasea

Datorren astean bigarren faseari ekingo dio Udalak eta fase honetan lehenengo bileran ateratako diagnostikoari lehenetsunak emateko garaia izango dela jakin arazi du, “auzotarrek ikusten dituzten lehenetsunak komunean jartzeko garaia izango da”.

Udalak azaldu zuenez, proposamen hauekin Parte Hartze prozesuak jarriko dira martxan, non, Udala eta herritarrek izango diren gaia landuko dutenak bilera ezberdinetan.

Beraz garrantzitsua da Udalarentzat bizilagunen iritzia jasotzea, horrela, herritarrei gogorarazi nahi die bigarren bileren txanda martxoaren 20ean hasiko dela Zabaletan.

GIZARTE ZERBITZUAK

Hitzaldia Biyak Bat elkartearekin

Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzu, Inmigrazio, Kooperazio, Epeleku eta Emakumea sailak antolatuta, gaur arratsaldeko 17:00etan, “Gizarte Zerbitzuak adinduei hurbiltzen” hitzaldi informatiboa eskainiko da, Biyak Bat erretiratuente elkartearekin.

BERRIA

Berrialagun kanpainako bilera

Berrialaguna egiteko kanpaina hasi du BERRIA egunkariak herriz herri, eta euskalgintza eta kulturgintzako sektorez sektore. BERRIAren irakurleak eta zaleak ez ezik, euskaraz bizitzeko asmoa duen guztiongan iritsi nahi du.

Lasarte-Oriaren ere hori lortu nahian, datorren martxoaren 22an, ostegunean Manuel Lekuona kultur-etxean egingo den bilerara gonbidatzen ditu interesatuak dauden herritarrek.

Egunkariako arduradunek azaldu dutenez, “herrian noren-ena eta nola iritsi gaitzekin ikustea, lankide eta kontaktuak zein izan ditzakegun eta zer egin dezakegun pentsatzea da helburua”.

GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

Merkalitateari buruzko saioa

Gipuzkoako Bazkondeak Merkaltateari buruzko saioa antolatu du Villa Mirentxun, martxoaren 20an, astearte, arratsaldeko 14:30etan, Lasarte-Oriako Udaletxea eta BERRIAK merkataritza dinamizatzeko bulegoaren laguntzarekin.

Bezeroarekiko harremana hobetu nahi duten Buruntzaldeko merkatariei zuzenduta dago saioa. Honetan, kalitate marka hau lortu ahal izateko jarraitu behar diren pausuen berri emango dizkiete eta bereziki, bete beharreko baldintzak zeintzuk izango diren argituko dizkiete.

Bazkondeak azaldu duenez, merkaltateari esker, dendariak beste merkataritatiekin bereizten dituen kalitate marka eta ziurtagarria lortzen dute. “Horrela bere irudia eta zerbitzua hobetzen dutelarik”.

Merkaltatea ziurtagarria lortzeko prozesu osoa doakoa dela jakin arazten dute, Gipuzkoako Bazkondearen eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzei esker.

Gipuzkoako Bazkondeak eskaintzen duen zerbitzu hau Kalidenda 2012 programan barneratzen da. Programa honen helburua Euskal Autonomi Erkidegoko dendariak Merkaltatea ziurtagarria lortzea da. Hau Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen Merkaltatea zigitua, alegia, UNE 175001 arauan oinarritzen da.

Informazio gehiago nahi izanez gero edota izen emateko Gipuzkoako Bazkondearekin harremanetan jartzea besterik ez duzue 943 000 300 telefonora deituz.

M-29ko grebaren aldeko manifestazioa

Martxoak 29rako Euskal Herriaren Greba Orokorrerako deialdia egin dago. Testu inguru horretan Lasarte eta Usurbilgo LABek martxoaren 23an, ostiralean Lasarteko Okendo plazatik 19:00etan aterako den manifestaziora deitzen du.

Euskal sindikatuak azaldu bezala, Estatuko gobernuak onartu duen lan erreforma berriak, zuzen-zuzen eragina izango du euskal herritar guztiongan. “Lan harremanak enpresariengatik esku soilik utziz, garteria prekarizatuak gordinera kondenatuz, negoziazio kolektiboa deuseztatuta pobrezia zabalduz eta kalera-tze librearekin langabezia hedatuz,” azpimarratzen du.

Era berean, LABek gogoratu nahi du, 2010an onartutako lan erreformak kaleratzeak

merkatu zituela eta ondorioz langabezia kuota gora jo duela. Momentu honetan, LAB eskaintako datuen arabera, gure herrietan langabezia gora egin du, Lasarte-Oriaren 1369 langabe daude, %16ko langabezia tasarekin eta Usurbilen 326 langabe daude %10,3ko tasarekin.

Honen guztiaren aurrean, alternatiba badagoela adierazten du sindikatuak “Euskal Herriak BURUJABETZA politikoa eta ekonomikoa behar du, justizia sozialean oinarritutako den Euskal Herria eraiki ahal izateko”.

Horregatik LABetik Lasarte eta Usurbilgo langileak, gazteak, langabeziak, pentsiodunak, herritar guztiak orokorrean deitzen ditugu Lasarten egingo den manifestazioan parte hartzera.



Inchausti-Otaegik bere dendak itxiko ditu. - Herriko altzari dendek euren ateak itxiko dituzte 27 langile kaleratuz. Hauek salatzen dituzten langileek protestak burutu zituzten ostiral eta larunbatean Errekaldeko dendaren sarreran. Langileek kaleratze hauen baldintzak salatzen dituzte eta enpresarekin bestelako akordioetara iritsi nahi dutela defendatzen dute. Izan ere, bost ERE prozesu burutu dituzte 2009tik eta azkena bukatzearekin batera jakinarazi zieten dendak itxiera definitiboa. Honen arrazoa diru galera itzelak direla argudiatzen du enpresak.



Eguraldi ona lagun, bete-bete eginda ageri zen Okendo plaza larunbat eguerdian.



Herritar asko hurbildu ziren azokara, eta gehienek erosi zuten zerbit.

Salerosketa handia herrian

Bigarren eskuko merkatuen bosgarren edizioa antolatu du Sanmarko Mankomunitateak, berrerabilera bultzatzeko

TXINTXARRI

Bosgarrenez antolatu dute merka2sanmarkos bigarren eskuko merkatuen azoka, hiri-hondakinen sorrera prebenitu eta berrerabilera bultzatu asmoz. Gipuzkoa osoko 10 herritan egiten ari dira ekimena eta Lasarte-Oriari egokitu zitzaion txanda larunbatean. Asteazkenetik, Olaiaren erroka izango da herrian.

Eguraldi paregabea izan zuten larunbatean Okendo plazara hurbildu ziren herritarrek. Era guztietako produktu berrerabiliak trukatu edo erosteko aukera izan zuten eta adin guztietako jendea ibili zen alde batetik bestera mauka bila.

75 salmenta postu

Guztira 75 salmenta postu jarri zituzten Gipuzkoa osoko hainbat herritatik etorritako saltzaileek. Horietatik 13 izan ziren herritarrenak.

Olaiaren erroka

Asteazkenetik aurrera, Olaia eta Aitor, elkarrekin biziko dira lau egunez Okendo plazan prestatutako gela inprobisatu batean, herritar guztien begi-bistan. Olaiaren erroka Aitorrek birziklatzen ikastea izango da.

Lehiaketa bat ere jarri dute abian, etxean nola birziklatzen duzun erakusteko. Bidali zure argazkia olaiarenerroka@gmail.com-era, onenarentzat Mugaritzen afaria sari.



Adin guztietako jendea ibili zen batera eta bestera mauka bila.

Ainhoa Intxaurrendieta Sanmarko Mankomunitateko lehendakaria

“Hondakinen kontuan asko hobetu behar dugu”

Sanmarkotik hainbat izan dira hilabeteotan gure herrian burutu diren kontzientziario kanpainak. Hauek duten garrantzia mintzatu da Mankomunitateko egungo lehendakaria Ainhoa Intxaurrendieta.

Larunbatean Lasarte-Oriari izan da bigarren eskuko azoka. Aurretik eskoletan egin da Zirt edo Zart ekimena. Beharrezkoak al dira oraindik horrelako kontzientziario kanpainak?

Dudarik gabe. Kontzientziario kanpainak beti izango dira beharrezkoak, hondakinak sortzen ditugun unetik, hauekin zer egin behar dugun argi izan behar dugu, gauzak ondo egin nahi baditugu behintzat.

Olaiaren erroka kanpaina ere hor duzue. Zein helburrekin jarri duzue mar txan hain eki-

men berritzaile eta deigarria?

Helburu garrantzitsua da jendeak birziklatzea eta birziklatzen duen hori ongi egitea. Zalantza asko sortzen dira birziklatzeko orduan gauzak ondo egiten ari garen ala ez eta hauek argitu nahi ditugu.

Beste helburu bat gazte jendea kontzientziatzea izan da eta horregatik hain zuzen, internet bitartez jarraitzeko aukera dugu, Facebook, Twitter eta Tuenti bidez interakzioa, galderak planteatu, egoera berriak proposatu etab.

Ekoshopper ere lehen aldiz antolatu duzue. Jendearen erantzuna ona izaten ari al da aipatutako ekimen guztietan?

Bai, erantzun ona espero genuen, baina uste baino hobeia izan da. Ekoshopper kanpaina hasi genuenean, hainbeste dei jaso genituen kanpainan parte hartzeko, bi

astez luzatu genuela deiak egiteko aukera, ahalik eta lagin errepresentatiboena lortzeko biztanleriaren artean.

Olaiaren Erronkarekin ere ikaragarria izan da, 6.200 pertsonak egin dituzte galderak internet bidez, nola birziklatu behar zen, apartazioak etab.

Aipatutako ekintzak hondakinak murriztu eta prebenitzeko planaren barruan txertatu daude. Birziklapenaren inguruan bide luzea egiteko daogoa esango zenuke?

Bai. Legeak dioen bezala, hondakinekin eman beharreko lehenengo urratsa, hauek murriztea da, hau da, gutxiago sortzea, bigarren pausua, sortutakoak berrerabiltzea, hirugarrena, birziklatzea, laugarrena, energetikoki balorizatzea eta azkenik, hauek deuseztea.

Hau hierarkia bat da, hau

da, ezin da hurrengo pausura pasa, ahalegin guztiak egin gabe gauden pausu horretan.

Gaur egun Gipuzkoako birziklatze tasa % 34,19an dago, baina bertan badaude lau herri, portzentaia %80tik gora dutenak. Zalantzarik gabe, asko hobetu behar dugu.

Azken urteetan herritarrek hondakinen kontua beste modu batera ikusten dutela uste duzu?

Pixkanaka pixkanaka bagoaz. Azkenean ardura kontua da, hondakinak guk sortzen ditugu eta gure ardura da hondakin horiek behar den bezalako tratamendua jasotzea, ingurumenagatik, gure osasunagatik eta baita ekonomikoki ere. Balia-bide bezala ulertu beharrea eta gainera dirua jaso horienagatik, zabortegira botatzen ari gara, kutsatuz eta izugarriko diru kopuruak ordainduta.



Ekimenetatik at, Mankomunitateak zein lerrotan bideratuko du bere lana datozen hilabeteotan?

Guri dagokigun arloan, lehen aipatu dudun lege hori beteaz, hau da murrizketa, berrerabiltzea eta birziklatzea. Gure etorkizuna eta gure seme alabena, osasuntsua eta naturarekin bat nahi dugulako.

Erraustegia eta atez atekoaren kontura adostasuna lortuko dela uste duzu?

Adostasuna lortu behar dugu. Horretarako bidea zentzudunak izatea da, alderdikeriak alde batetara utzi eta elkarlanean aritzea. Osasuna, ingurugiroa baita ekonomikoki dituen onurak defendatzea.

Sasoi onean da kirol zerbitzu euskalduna

► Kiroldetik helduentzako ikastaroetan gero eta euskara gehiago erabiltzen da ► Bat izan ezik beste monitore guztiak dira elebidunak ► Kirol eta Euskara zerbitzuak batera ari dira lanean

Ahalegin handia egiten ari da Lasarte-Oriako Udala kiroldegian eskaintzen diren ikastaroetan euskararen erabilera bultzatzeko, 15 monitore ari dira 758 herritarrekin 12 kirol mota ezberdin egiten eta monitore bat izan ezin beste guztiak dira elebidunak. Ikasleen euskara mailaren arabera osatzen dira taldeak, guztira 71, gero monitoreek ere taldeen arabera aritzeko: nagusiki euskaraz (%27,2), bi hizkuntzatan (%44,7), edota nagusiki gaztelez baina euskarari sarbidea emanaz (%27,2).

Jon ALTUNA IZA

Kiroldetik monitoreen euskararen erabilera asko hobetu da azken hamar urteotan Udaleko Kirol eta Euskara Zerbitzuak garatu duten programari esker. Ikasleekin darabilten hizkuntzari erreparatu, 2004-2005 ikasturtean, monitoreen %84,5ek erabat gaztelaniaz egiten zuten. 2011-2012 ikasturtean, aldiz, erabat gaztelaniaz ez du bakar batek ere egiten; nagusiki gaztelaniaz, baina agurrak, animatzeko esamoldeak eta horrelakoak euskaraz erabiltzen, %27,2k; bi hizkuntzatan, %44,7k; eta erabat euskaraz, %27,2k.

12 kirol mota praktikatzeko dira kiroldegian: aerobica, aquaerobica, aquagyma, bana-ko entrenamendua, body pump, GAP, kirol egokitu, kirol ludoteka, mantentzeko gimnastika, pilatesa, spinninga eta ur-ludoteka + igeriketa.

Monitoreak giltzarri

Ikastaroak euskalduntzeko Udalaren programan 16 urtetik gorako ikasleaz osatutako taldeak besterik ez dira kontuan izaten, 16 urtetik behar-koentzat erabat euskaraz ematen baitira.

2011-2012 ikasturtean, kiroldegian ari diren 15 begiraleatik %93 dira elebidunak, hau da, euskara ulertu baina erabiltzeko erraztasunik ez duen monitore bat izan ezik, beste guztiak dira elebidunak. 2004-2005an, datuak biltzen hasi zirenean, %60 zen elebiduna.

Helduen taldeetan sor daituzkeen hizkuntza-egoera desberdinak egoki kudeatzeko, propio sortutako metodologia bat erabiltzen da Lasarte-Oriako kiroldegian eta hiru tipotako taldeak osatzen dira.

Hiru motatako taldeak

A motako taldeetan, ikasle guztiak ulertzen dute euskara, eta ikastaroa nagusiki euskaraz emango du monitoreak. B motako taldeetan, ikasle erdiek baino gehiagok ulertzen dute euskara, eta ikastaroa nagusiki euskaraz emango du; baina premiazkoa ikusten duenean, laburpena edo bakarkako azalpenak gaztelaniaz emango dizkio euskaraz ondo ulertzen ez duenari. C motako taldeetan, ikasle erdiek baino gutxiagok ulertzen du euskara, eta ikastaroa nagusiki gaztelaniaz izan arren, euskarari sarbidea emango dio monitoreak, agurrak, animozko hitzak eta horrelakoak euskaraz erabiltzen.

2002-2003 ikasturtean jarri zen programa abian, "ikusirik kiroldegiko erabiltzaileen artean asko zirela ikastaroak euskaraz egiteko adinako euskararen ulermen maila zutenak". Orduan, bost taldetan aplikatu zuten metodologia hori, horiek baitziren monitore elebidunen ardurapean zeuden taldeak (kiroldegiko talde guztien %30 inguru). Hamargarren aldiz ari dira horretan 2011-2012 ikasturtean eta ia ehunetik ehunetan, 43 taldetan, eragiten ari dira. Gimnasioko eta igerilekuko laguntzaileak daude soilik kanpoan.



Kirol eta Euskara Zerbitzuko ordezkarien eta Kiroldetik monitoreen arteko bilera.

Elkarlana

Kiroldetik ikastaroak izan duten hizkuntza bilakaeran, ezinbestekoa izan da Bizkortzen kirol enpresaren, Kirol Zerbitzuaren eta Euskara Zerbitzuaren elkarlana aurrerapausoak emateko.

Aipagarriak dira, batetik euskararen erabileraren sustapenean Udalaren Kirol Zerbitzua aitzindari dela, eta horrekin batera, programan murgildu den Bizkortzen enpresak izan duen jarrera eta egindako ahalegina. Programaren bultzatzaileen iritziz, hasieratik bertatik hartu zuten konpromisoa monitore elebidunen kopurua igotzeko eta ikastaroak euskalduntzeko programa progresiboki talde guztietara zabaltzeko.

Elkarlan horren emaitzetako bat monitorezako sentsibilizazio-saioak dira. Kiroldetik taldeen hizkuntza errealtate desberdinei aurre egiteko monitoreek prestakuntza behar zutelako konturatu ziren. Saio horietan, hizkuntza-kudeaketan izan dituzten esperientziak kontatzen dizkiote elkarri monitoreek, izan dituzten eragozpenak eta erabili dituzten estrategiak partekatuz.

duten esperientzia eta iritziz plazaratu dezaten.

Lasarte-Oriako Euskara eta Kirol zerbitzuen informazioa ematen duen blogean, kiroldegiko ikastaroetan izan duten hizkuntz esperientziaren berri eman ahal izango dute kiroldegiaren erabiltzaileek, bertan planteatzen zaien galderari erantzunez.

Fede Cavallé Bizkortzen-eko koordinatzailea

“Erabiltzaileen aldetik ez dugu batere arazorik izan”

Monitore eta sorosle lanak eramaten ditu Bizkortzen enpresak Lasarte-Oriako Kiroldetik, "monitoreen aukeraketa eta ekintzak, aerobika, edota ikastetxeetako igeriketa ikastaroak, besteak beste", Fede Cavallé esan digunez.

Ahalegin berezia egin duzue azken urteotan ikastaroak euskaraz emateko, ezta?

Lasaitasunez egin dugu, ondo informatuz, inolako presarik gabe. Duela hamar urte hasi eta, kontzientziaturik, duela sei heldu genion sendo proiektuari. Oso ondo doa, monitoreek oso barneratuta daukate. Jarrera ona dute oro har, ez dugu inolako arazorik izan, ezta bezeroen edo erabiltzaileen aldetik ere. Beti egon daiteke kasuren bat, baina ez dugu arazorik izan.

Euskara erabiltzen dute beraz monitoreek?

Bai, pertsonalki bakoitzaren harremanak ez dakit nolakoak izango diren, agian kanpoan joera dute gaztelania erabiltzeko, baina, hemen, kiroldegian, oro har, elebidunak garenez, dena euskaraz egiten dugu.

Monitore elebidunak izateko eragina al dauka kirol zerbitzuan eta bere kalitatean?

Bai eta onerako. Elebidunak gara, ikastaroa euskaraz jaso nahi duenari euskaraz zuzen-duko zaio monitorea eta,



aldamenekoari, erdalduna bada, bere ama hizkuntzan, gaztelez. Sentsazioa da arreta norberaren neurrikoa, pertsonalizatua dela.

Beharrezkoa denean, bana, azalpenak beste hizkuntzan emanaz beraz...

Tratu berezia ematen zaie. Ez da sekula erabiltzaile bat behin ere hizkuntzarenatik zer egin behar den ulertu gabe geratuko. Hori ez da gertatzen.

Zein da azken helburua? Erabiltzaileari nahi duen hizkuntza erabiltzeko aukera erraztea?

Bai, eskubide bat da eta bultzatu egin behar da. Zailena monitore elebidunak aurkitzea zen, baina orain erraztu da, gazte gehienak elebidunak direlako. Ez dugu alde horretatik arazorik.

“Zuk esan!” bloga erabiltzeko aukera

Kiroldetik ikastaroen euskalduntzea oso garatua badago ere, bultzatzaileek zalantzarik ez dute hobetzen segi behar dutela eta euren iritziz, eginkizun horretan, ezinbestekoa da kiroldegiko erabiltzaileen parte hartzea.

Hauen iritzia ezagutzeko



eta esku hartzea errazteko, Lasarte Oriako "Zuk esan!" bloga jarri dute erabiltzaileen eskura, www.buruntzaldea.org web orriko euskaratalean. Gazteria, Festak eta Kirola saileko Taxio Arrizabalaga buruak erabiltzaileei deia luzatu die kirol ikastaroetan hizkuntzaren inguruan izan

TXIRRINDULARITZA.-

Herriko txirrindulariak errepidean jada

Duela hilabete inguru hasi zuten errepideko denboraldia, eta emaitza onak eskuratu dituzte

Alebin, infantil, kadete eta junior mailetan ditugu herriko txirrindulariak jo eta ke pedalei eragiten. Gehienek Lasarte-Oria eta Usurbilen artean osatutako Bazpi Txirrindularitza Eskolan dihardute, baina bada Donostia edo Andoaingo eskoletan dabilenik ere. Asteburuan, alebin eta infantilek Usurbilgo industrialdean izan zuten lasterketa eta txukun aritu ziren herriko txirrindulariak.

Hasi dira aldagaiuen soinuak entzuten errepidean, hasi dira kateari botatako olioz zikindutako hankak ikusten lasterketa aurretik, betiko urduritasuna eta matxura mekanikoak ageri dira... Abiatu da errepideko denboraldia txirrindulari lasarteoriarrentzat.

Asteburuko lasterketa

Usurbilen asteburuan izan zen alebin eta infantil mailako etxeko lasterketan, Bazpi taldeko txirrindulariek itxura polita eman zuten.

Lehenik eta behin txikien txanda izan zen, arratsaldeko 16:30ak pasatxo zirela, kilometroa neurtzen zuen barrutiari lau itzuli eman behar izan zizkieten alebinek.

Zitu bizian burutu zuten

lau kilometro inguruko lasterketa eta maila txukuna eman zuten herriko lasterkariek.

Infantiletan brontzea

Infantilek berriz, 12 itzuli eman behar izan zizkieten barruti berberari, hamabi kilometro lasterketa osatuz.

Nahiko lasterketa urduria izan zenez, bosgarren itzuli inguruan eroriko bat ere izan zen. Zorionez, zauri arinak besterik ez zituzten izan eroritako hiru txirrindulariek.

Lasterketa sprint-ean amaitu zen, eta Luken Carbayedak merezimendu osoz egin zuen hirugarren, bere abiadura puntua baliatuz.

Hurrengo zita

Martxoaren 24an, Zarautzen izango dute lasterketa alebin eta infantilek, 16:30etan.



Buruntzapiko txirrindulariek lasterketa onak osatu zituzten bi mailetan, eta Luken Carbayedak hirugarren postua lortu zuen infantiletan.

IGERIKETA.-

Igerilari gazteak fin txapelketetan

Buruntzaldea IKT-ko igerilariak lehiaketaz lehiaketadabilta.

Liño Ibarburu infantil mailako Espainiako txapelketan izan zen martxoaren 9tik 11ra Mallorcan.

Ostiraletik igandera bi proba egin zituen egunero. Borja Apeztegia entrenatzaileak jakin arazi digunez, "bikain ibili da egindako proba guztietan eta denetan bere markak hobetzea lortu du".

Postu onenak 50 m. libre, 100 m. tximeleta eta 200 m. tximeleta probetan egin zituen herriko gazteak. Hiru-eretan 11. postuan amaitu zuen.

100 m. tximeleta proban, 50 metroko pasean bere marka pertsonala hobetu zuen eta 200 m. tximeletan 4 segundutan jaitsi zuen bere marka.

Ligako jardunaldia

Bestalde, martxoaren 10a

larunbatean, taldeko alebin eta benjaminek Ordizian ligako 3. jardunaldia izan zuten eta emaitza onak lortu zituzten.


Bederatzi urtekoen artean, 50 metro bular proban, Leire Martinek eta Unai Senovillak lehenengo postuan amaitu zuten.

2002 urtekoetan, proba berdinean, Izadi Villaronek eta Iker Chavesek hirugarren postua lortu zuten eta adin honetako, 100 bular proban, Irati Arzallusek lehen postuan amaitu zuen eta Iker Chavesek, aldiz, hirugarren.

2003 eta 2002 urteko gaztetxoek osatutako 6x25 tximeleta errelebo mixtoa izan zen ere eta hauek bigarren postua eskuratu zuten.

2001 urtekoen mailan, neskak 50 m. libre proban Nahia Jie Villamedianak lehen postua egin zuen eta Jon Sotok laugarrena.

200 m. proban ere, Nahia Jie izan zen irabazle eta Leire



Liño Ibarburu Espainiako txapelketan proba baten irteera prestatzen. LACORCHERA.COM

Carcedo eta Nora Irazustak bigarren eta hirugarren postuan amaitu zuten; mutiletan, Jon Soto hirugarren izan zen.

Hamabi urtekoen mailan, Beñat Alkorta 200 bular proban hirugarren izan zen eta 50 m. libre-koan laugarren; nesketan, berriz, Janire Berasarte hirugarren eta Maialen Casado laugarren izan ziren 100 m. libre proban

Janirek gainera 800 m. libre proban aipatzekoa emaitza egin zuen, "hurrengo urtean, Euskadiko txapelketarako egin beharreko markatik oso gertu".

Honetaz gain, mutiletan, zein nesketan 4x50 m. bizkar erreleboak izan ziren. Nesken taldeek bigarren eta hirugarren postuak lortu zituzten eta mutilek, aldiz, hirugarrena.

GIMNASTIKA.-

Infantil taldea bikain Udaberri txapelketan

LOKEko gimnastek lehenengo asteburuan, martxoaren 11 igandean, Oiartzunen Udaberri txapelketako lehenengo saioa izan zuten. Honetan, infantil eta alebin taldeek parte hartu zuten eta infantilak izan ziren emaitza onena lortu zutenak.

Infantil taldeak 4 uztaiekin lan egin eta bigarren postua eskuratu zuten epaileek emandako 9,05 puntuak esker.

Alebin mailan berriz, 24 talde aurkeztu ziren eta herriko aldeak bi talde izan zituen bertan, Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri.

Taldeek pilota eta esku hutsekin lan egin behar izan zituzten. Sasoetako taldeak 17. postuan amaitu zuen lehiaeta Landaberrik, berri, hamabogarenean.

Hurrengo asteburuan, Bergaran izango dira LOKEKO neskak. Oraingoan amateur mailako lehiaketa dute eta Gipuzkoako txapelketako finalera baliozgarria da.

— Agenda —

Osteguna 22, Jalgi Kafe-antzokian, 21:30ean



Iritsi da Laburbira

Laburbira film laburren zirkuitua Lasarte-Oriara iritsi da. IX. edizio honetan 8 film labur eskainiko dira. Ordu eta erdi inguruko iraupena izango duen emanaldian fikzioako lau lan, animaziozko bi, dokumental bat eta bideoklip bat ikusteko aukera egongo da. Bereziki aipagarriak dira 60. hamarkadan Gotzon Elortzak sortutako lana, "Aberria" euskaraz egindako dokumentalen aitzindarietako bat, eta Xoxe Diaz galiziararen "Instalación".

Astigarraga Antzerkia

ASTIGARRAGAKO KULTUR-ETXEA
Igandea 25, 17:30ean

Borobil antzerki taldeak "Ali Baba eta 40 lapurrak" lana eskainiko du. Familia osoak umorez gozatzeko aukera izango du. Sarrera, 2,5 euro.

Hernani Musika

BITERI KULTUR-ETXEA
Ostirala 23, 20:00etan

Hernani'n Musik-en barruan, 'Faust' film mutuaren proiektzioa izango da. Musika "The Silent Band" taldeak joko du zuzenean.

MILAGROSA KAPERAN

Larunbata 24, 11:30ean eta 17:00etan

Hernani VIII. Txistulari Gazteen Txapelketa izango da.

KALEETAN ZEHA
Igandea 25

Txistularien Topaketa ospatuko da.

Usurbil Musika

Asteartetik igandera

VIII. Soinurbil musika zikloa antolatuko da. Asteazken zehar organo erakustaldia, kontzertuak eta ikuskizunak izango dira.

Lasarte-Oria Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 25, 17:00etan

Haurrentzako zinearen barruan, "Fucsia, la minibruja" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 3,40 euro.

Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 30, 19:00etan

Lasarte Oriako atalaren barruan, "KantaJimJazz" taldearen kontzertua izango da.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 24, 18:30ean

"Aitona Matias" haurrentzako txo-xongilo emanaldiaz gozatzeko aukera. Sarrera online, 3 euro; leihatilan, 3,40 euro. Euskaraz.

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Asteartea 27, 18:00etan

Haur liburuaren eguna dela eta, Ingu-ma taldeak "Bidaian" kontaketa eskainiko du. 5 eta 6 urte arteko haurrei zuzendua dago.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Martxoan zehar

Rudy artistaren "Ibilbidea Euskal herrian zehar" margolanen erakusketa ikusgai dago. Koadroak salgai daude.

Andoain Musika

BASTERO KULTURGUNEA
Ostirala 23, 21:30ean

Ruper Ordorikak "Hodeien azpian" disko berria aurkeztuko du Andoain. Sarrera, 10 euro.

— Herritarren txokoa —

Jalgi Hadi Garaipenera

Euskal gazteriak bere osotasunean sorturiko Jalgi Hadi Garaipenera dinamikaren baitan, Lasarte-Oriako gazteek ere, bereari ekin eta egunero ezkutatu nahi duten Euskal Herriko historia plazaratu eta aldarrikatu nahi dute.

Horretarako, Andoain, Hernani eta Usurbilgo gazteekin batera Buruntza taldea sortu eta hurrengo asteetan hainbat ekintza prestatu dituzte gure herrian:

- Martxoaren 23an, ostirala, 17:00etatik aurrera, Gazte Martxako aurkezpena eta nafarroako azken gudaren inguruko mahai inguru dinamikoa egingo dute Xirimiri elkarteak.
- Larunbatean, martxoaren 24ean, berriz, eskualdeko gazteek irteera egingo dute Amaiur eta Elizondora. Nafarroako konkistaren 500. urteurrenaren dela eta, formakuntza gisa balioko duen txangoa izango da. Izena emateko zerrenda Trumoi tabernan dago.
- Martxoak 28an, asteazkena, afaria eta bideo emanaldia izango dira Xirimiri elkarteak.
- Martxoaren 31an, larunbatean, "Ezkutua-eskura" izeneko jardunaldia egingo da. Honetan, mendi irteera, hitzaldia, bazkaria, bertso saioa eta trikipotea izango dira.

Informazio gehiago jaso nahi duenak, tuentiko Buruntza Jalgi Hadi Garaipenera eta facebookeko Jalgi Hadi Garaipenera Buruntzaldea kontuetan, edo jalgihadiburuntza@gmail.com helbidean eskuratu dezake.



— Hemeroteka —

Duela 1005 ale

John Miller kaliforniarri egingo elkarriketa argitaratu zen. 1973. urtean iritsi zen Euskal Herrira eta ebanjelista izanik "Jaunaren hitza ulertzen laguntzea" zuen helburu.

Hona etorri arte ez zuten euskal kultura ezagutzen. "Hasiera batean, Jaunaren hitza erdaraz predikatzen genuen", adierazten du.

Baina euskara ikasi eta honela aldarrikatzen zuen elkarriketan "euskaldunok euskaraz hitzegin behar dugu". Izan ere, Lasarte-Oriako kaleetan "euskara gutxi" entzuten dela adierazten du.

Bestalde, jendearekin harremana ona dela, baina erlijio kontuetan jaunaren hitza onartu nahi ez zela adierazi zuen, "jendeak bertako tradizioari heltzen dio eta gehienek ez dute interesik Jainkoaren hitza ikasteko". Hala ere, beste erlijioekiko jakinmina zegoela ere azpimarratzen zuen.

Era berean, katoliko eta ebanjelisten arteko desberdintasunak azaldu zituen, "ezberdintasuna oinarrian datza. Ebanjelistentzat oinarri bakarra Jainkoaren hitza da[...] Katolikoentzat, aldiz, oinarria eliza da".

Kalifornia eta Euskal Herriko gizarteak ere aztertu zituzten elkarriketa horretan, "Kaliforniakoa, oro har, irekia da. Izaera desberdineko talde ugari dago. Euskaldunak, aldiz, tradizioak pisu handia du eta itxia da".



Iñaki Arruti Udaleko Euskara Zerbitzuko Teknikari Burua

“Udalean lehen hitza euskaraz izatea naturalena beharko luke”

Euskara zerbitzuetako profesionalak bilduko dira ostegun eta ostiralean Udaltop topaketan baitan Manuel Lekuonan.

Udaltop topaketak burutuko dira laugarren urtez herriko Manuel Lekuona kultur-etxean. Hauen antolaketan buru belarri dabil Iñaki Arruti Udaleko Euskara Zerbitzuko Teknikari Burua. Aurtengo gaia izango da “Nolakoa da gure (udalaren) hizkuntza-politika? Begiratu, mesedez, euskara sailetik kanpo!”. Topaketak 150 profesional baino gehiago bilduko ditu ostegun eta ostiralean.

Maider AZURMENDI

Topaketa hauen laugarren edizioa izango da eta Lasarte-Oriako euskara zerbitzutik ari dira dena antolatzen. Iñaki Arrutik hauetan jorratuko direnak azaldu dizkigu.

2009an ospatu zen lehenengoz Udaltop. Zergatik topaketa hauek?

Euskara zerbitzuan ideia beza-lan sortu zen. Betidanik izan da gure lanaren asmo bat hizkuntza nola biziberritu eta egia da Euskal Herri osoan zehar udal-letxe ia guztietan dagoela Euskara zerbitzua. Bakoitza oso ezberdina da baina beti baloratu izan dugu arazo oso berdinak dauzkagula. Horregatik ikusi genuen urtean behin biltzea ondo legokeela amankomunean jartzeko arazo horiek, gure artean aukeratutako gaiaren inguruan hitz egitea oso interesgarria izango zela.

Udal mailako hizkuntza politikaren inguruan Alcoy, Alacanten egiten diren jardunaldietara joan nintzen nola burutzen ziren ezagutzera eta horiek eredu hartuta, prestatu genuen lehen topaketa 2009an. Aldundiak babesa eman zion proiektuari berehala eta ondoren jaso genuen, Jaur-larritza, EUDEL eta Kutxaren laguntza ere.

Nola aukeratu dituzue topaketak gaiak?

Lehena guk aukeratu genuen eta interesgarria irudituz gure euskararen transmisioa familiaren barruan nola landu jorratzea. Beti ere kontutan izanda: zer egin daiteke udal-etik horretan laguntzeko? Horren bukaeran erabaki genuen bertarututakoek galde-tzea ea zein izan zitekeen hurrengo topaketan gaia eta hala erabaki dira hurrengoak.

Azkeneko edizio honetan “Nolakoa da gure (udalaren) hizkuntza-politika? Begiratu, mesedez, euskara sailetik kanpo!” askotan jendeak uste du erakunde batek egiten duen hizkuntza politika, hezkuntza politika departamentutik egiten dela, baina hori erdizkako egia da. Erakunde bateko hizkuntza politika norbaitek ikusi nahi badu, hobe du euskara saila ordeztu, beste sailetako hizkuntzaren kudeaketa ikustea.

Topaketa hauetatik jaio al dira amankomuneko lanerako bideak?

Elkarrekin lan taldean aritzeko aukera izaten dugu azken jardunaldian eta hemendik ateratzen dira askotan ondorio eta jorratu beharreko gaiak. Bakoitzak pista batzuk ateratzen ditu entzundakotik eta ondoren bakoitzak berera eramaten du. Horren aplikazioa geratzen da

bakoitzaren esku. Betiko asmoa da amankomuneko bideak jarraitu ahal izatea erakunde guztietan baina horrek eragina badu beste esparru batzuetan eta ez dago hizkuntza teknikarien esku soilik.

Aurtengo egitarauari dagokionez zer esango zenuke?

Hiru ataletan banatuta dago. Batetik alde teorikoa dago, horretan aurten bi ekarpen, Bernat Joan i Mari Katalan Filologian doktorea, soziolinguista. Europar Parlamentuko kidea izandakoa eta Kataluniako Generalitateko Hizkuntza Politikako Idazkari izandakoa ekarriko duena eta Mari Luz Esteban EHUtik Gizarte Antropologia irakaslea denak aurkeztuko duen “Feminismoa, euskaragintzarako gogoeta-tresna”.

Bigarren atala ikerketa ekin-tza da. Horretarako datoz Era-lanekoak Bermeoko udalean burututako esperientzia baten inguruan hitz egitera. Azkenik, hirugarren atala praktikak liriteke, hau da, esperientzia ezberdinak ezagutzeko aukera izango da. Aipatu ere, ahalegin berezia egin dugula kargu politikoak ekartzeko hizlari eta baita entzule modura ere.

Baina azoka eta erakusketa bat ere egongo dira.

Bai azokan hizkuntza zerbitzuak ematen dituzten Tkakun bezalako elkarteek aukera izango dute euren produktu eta zerbitzuak erakusteko. Erakusketan, telebista batzuen bidez, Euskal Herriko zazpi esperientzia ezagutu ahal izango dira.

Orokorrean nola ikusten duzue topaketa?

Guretzako aurtengoa nolabait esateko, bidegurutze bat izan da. Aurtengo gaiak etortzen zen jende klase bat ez etortzearen arriskua zekarren. Administraziooko gaia izanik, kultur elkarteei agian gaia urrutit geratuko zitzaielako. Hau ikusita zalantza izan genuen gaiarekin baina aurreko urteko parte hartzaileek aukeratutakoak zenez, aurrera egitea erabaki genuen. Azkenean erantzuna ona izaten ari da, 150 matrikulatik gora ditugu, beraz oso pozik iazko zenbakietan ari garelako mugitzen.

Egitarau ona egiten saiatu gara eta gu pozik gaude.

Zer da euskara zerbitzutik lan-tzen ari zaretena?


Berritasuna azpimarratuz, kontutan izan behar da udalaren osaketa desberdina izan dela, termino linguistikoetan ari naiz, arduradun politiko guztiak elebidunak dira eta horrek eragin du, udal barruko jarduna ere euskalduntzea dakarrelako. Horretan ari dira ordeztu ari politikokoak eta

departamentu bakoitza lan handia egiten ari da langile guztiekin harremanak euskaraz izan daitezke egunerokoan.

Uste duzu herritarrek nabaritu dutela udal zerbitzuetan euskararen presentzia handiago hori?

Aldaketak, eta batez ere, hizkuntzari dagokionez, motelak izaten dira. Ez dira berehala nabaritzen. Prozesu bat da eta bi bide ditu, batetik udal barruan hizkuntzaren kudeaketa hobea egin behar du eta horretan ari gara eta bestetik, herritarrak izan behar dira aldaketa honetan eragile. Hau da, beraiek dira udalari hala jardutea eskatu behar diotenak. Honen harira blog bat jarri da martxan, “zuk esan” eta ari gara pausoak ematen.

Hala ere lan asko egiteko dago oraindik izan ere oraindik herritarrak erakunde, administrazioa jotzen duenean, ematen du hauetan gazte-leraz hitz egitea dela normalena eta joera hori aldatu behar dugu. Bideak topatu behar ditugu lehen hitza euskaraz esatea arruntena eta naturalena izan dadin beti.



OTEGI

SAGARDOTEGIA
SOLLAENEA BASERRIA

- Larunbata eta jai eguerditan irekita
- Asteartetik larunbatera gauero irekita

Zabaleta auzoa ■ LASARTE-ORIA ■ Tel.: 943 365029